



Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

♦ ITZULTZAILEA

Gobernatzeko manera

INDEPENDENTZIAK konponduko omen ditu Euskal Herriko arazoak, eta baliteke halaxe izatea. Aberri Egunaren karira, ez dira gutxi izan gero, ez independentziaren aldeko mezuak, ez zorioneko indar metaketaren aldekoak ere, herri honetan gehienok independentzia dugulakoan amets. Gehienok, gehiengo, gehiengo abertzalea, euskal gehiengo sindikala... Zalantzarik gabe, bai, gehienak baikara. Non, ordea? EAEn. Bejondeiela! Ados. Kontua da Nafarroa Garaian beste batzuk izan direla beti gehiengo, eta gu, berriz, beti gutxiengo, gutxiengo abertzalea, euskal gutxiengo sindikala, eta halaxe izan da joan den 35 urte honetan. Ez dakit EAEn sekulan ohartu ote diren ñabardura ttipi eta hutsal horretaz. Eta kontuak badu bere mamia, zer, salbuespenak salbuespen, EAEn diseinatu baitira hein handian Hego Euskal Herri osorako proposamen abertzaleak azken mende herenean. Gaur egun, ordea, espero dezagun gauzek bere horretan ez irautea; hau da, nahi baduzue, antola ezazue alimaleko kanpaina independentzia aldarrikatzeko, baina gutxienez egizue hein bereko ahalegina beste aldarri baterako, zertarako eta Nafarroa bestelakotzeko. "Abertzaleak ez direnak erakarri behar ditugu independentziaren aldarri" erran zuen lehengo batean independentzia zale batek. Ados. Baina 2015eko hauteskundeetarako urtebetea falta den honetan, nik hitz bat aldatuko nuke gogoeta horretan: "Abertzaleak ez direnak erakarri behar ditugu aldaketaren aldarri". Gakoa horretan baitatza. Bestela, alferrik. Hau da, azken inkesten arabera, orain hauteskundeak egitera, UPNko boto-emaileen laurdena etxean geldituko litzateke. Baina hori berez ez litzateke aski izanen bestelako Nafarroa antolatzen hasteko. Zerbait gehiago behar da, ezinbestekoa baita milaka boto batzuk gure aldera erakartzea. Duela gutxi arte, independentzia bera lortzea baino lan gaitzagoa izan zen hori. Gaur egun, ordea, eta besteak beste, UPNko Polo zinegotzi dimititu berriaren aferak eraginda, ez omen da egin ezina. Baina horretarako, independentzia hitza baino zerbait gehiago proposatu beharko zaio nafar jendeari eguneroko arazoak konpontzen saiatzeko, eta ahalegin berezia eta zentzuduna egin beharko dute Nafarroako euskal abertzale, euskaltzale eta aurrerazaleek, benazko eskaintza bat arloz arlo plazaratzeko, dela ekonomian, zergetan eta osasungintzan, dela hezkuntzan, herrilantetan eta azpiegiturretan, eta bereziki, nafar gehien-gehiengok bat egiten dugun kontu batean: Nafarroa bestela gobernatzeko maneran. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Arrakala proiektua

Doinua: Habanera.

Haitz batean jaio nintzen zurruntan zurrunena mugak eta oinarriak finkatuak dituen bizitza baten ildo bihurtu nahirik eskema batzuentzako patua besteentzako kondena... Baina hain kaotikoa da gehiegizko ordena, non arauturiko hori bilakatzen den problema. Hala, zirrikitutxo bat edo haitzaren etena deskubritzen dugunean aldatu daiteke dena.



Maddi Ane
Txoperena
Iribarren



"Noiz ekarriko diguzu mutil-laguna etxera? Zenbat seme ta alaba izan nahi duzu denera?" Horrelakoak entzuten joaten garen arabera guk sentitzen dugun hori joan daiteke gainbehera. Zeren, non daude desira, askatasuna, aukera? Non diseinatu gabeko mila bizitzeko era? Zergatik ezin ditugu zirrikitutik atera erantzun huts bakoitzetik bertze hainbertze galdera?

Galdera berri bakoitza da guretzat Arrakala: Zer den heteroaraua zer sexu ta zer normala, zer familia nuklear, zer heterosexuala, zer guzi hortatik kanpo dagoen zelai zabala... Nahiz eta ez dugun hartu bat'e erronka makala guztiok jarri dezagun gure nahia, eginahala. Haitzak mila pitzaduraz eztanda egin dezala, bakoitza bizi gaitezen guk nahi genukeen bezala. ■

